

II. EBSKAKATZE-LANA

Ikerlan niaterialak

Egileak, bere aurkezpenean, liburuaren eta beraren edukia-
ren berri eman digu, hau da, Elizak Euskal Herrian izan duen
historiaren ikuspegia. Historia bera oso labur emanik dator li-
buruan, baina bibliografia, iturriak, dokumentuak, ikerianeko
materialak albait zehatzen agerturik. Kristau-erlijioari dagokio-
nez, gure Herriaren iragan erlijiosoa aztertzeo oinarri sendo,
ziur eta zehatzak jarri dituela Julen Urkizak esan dezakegu.

Hau guztiau euskaraz dator. Egileak uste duenez, hauxe da
honelako Ian serio eta zabal batean euskarak gaztelaniari eta
frantsesari aurre hartzen dien lehen aldia. Euskal idazketaren
arduradun izan naizenez gero, horretaz hitz egitea dagokit
orain. Hona, bada, otu edo bururatu zaizkidan gauza banakak:

Hasiera-hasierarik ohartu nintzen Ian hau sakona, beharrez-
koa eta bikaina izango zela eta gogotsu ekin nion egileak es-
katuriko Ian honi. Folio eta fitxa multzo ikaragarriari aurre egin
behar izan nion, material eskergaitz hari euskaraz moldea eta
azala emateko. Beraz, orain liburua argitaratua delarik, neure
aldetiko apurra obra horretan jarri izanaren poza dut.

Liburua euskara batuan dago. Jakina, Hegoaldeko euskaldu-
nok egiten dugun euskara batuan. Bizkaieraz ere egin nezake-
en, baina hori liburua, irakurleei begira, plaza estuegian mu-
gatzea izango zen. Euskaraz argitaratzea bera ere bada nahiko
mugatzea. Hainbatek esan zioten egileari gaztelaniaz argitara-
tzeko, historialari, ikertzaile eta irakurlerik gehienak erdaldu-

nak baitira. Dena dela, Julenek hasierarik tinko iraun du Euskal Herriko Elizari eta euskarari ekarpen bikoitz hau egiteko asmoan eta horretan ez du amore eman.

Euskarari dagokionez, bakoitzak berea epaitzeko maiz begietan lausoa izaten duen arren, menturatuko naiz neuk zer on eta zer akats ikusten dudana esatera.

Aide oiiak

- Euskara erraza: euskara batu erraza, edonork ulertzekoa du liburuak. Hala esaten zidan euskara batua hain gogoko ez duen eta ia bizkaiera besterik ez dakien lagun batek: "Nik euskara batu hau irakurri eta oso-osorik ulertzen dot".

- Erdal kutsurik gabea, orohar: liburuak hasieratik azkenera euskaraz pentsatua eta moldatua dirudi; hau da, orohar gaiak gaztelaniatik itzuliak direnik ez du ematen.

- Euskara gai berezietara egokitzeko saioa: orain arte gutxi erabilitako gaietan euskara sarrarazteko eta trebatzeko ahalegin handia egin dugu hemen.

- Euskaltzaindiaren arau eta gomendikoak: arau eta gomendio guztiak betetzen ahalegindu naiz.

Aide ez hain onak

- Inprimategiko huts txiki batzuk.

- Euskaltzaindiaren arau eta gomendio batzuk bidean harrapatu naute. Liburuaren idazketa denbora luzean zehar egin izanik, ordenadorean nituen ataletan zuzenketak ahalik eta zehatzen egiten ahalegindu naiz, baina lehenengoetariko atal batzuk makinaz idatziak izanik, guztiak ezin izan ditut zuzendu. "Bat"/"batzuk"en deklinabidean gertatu zaizkit akats bana-banatuak.

- Zalantzak ere antzematen dira; esaterako, lehen garaiko idazketan "historilari" idazten nuen eta azkenaldian "historia-

lari". Kezkak sortu zizkidan beste hitz bat "monasterio" izena da. Euskal Herriko izen eta deituretan ezaguna da; nik neuk ere badut deitura hori. Hiztegi Batuaren batzordeak "monasterio"ren aldeko eta "monastegf"ren aurkako iritzia eman zuen. Hala ere, "monastegi" gaizki sorturiko hitza izan arren, azken urteotan idatziz agertzen den bakarra izanik, hau jarri nuen eta egilearen gogokoa ere berau baita...

Zailtasunak

- Dokumentuen katalogoko gaztelania zahar ulergaitza itzultzea.

- Izenak nola idatzi euskaraz, zer irizpide erabili. Lagun batzuei aholku eskatu ondoren, erabaki nahiko zehatzak hartu nituen; esaterako, euskal izenak euskal grafiaz idatzi eta azenturik gabe. Erdal izenak, berriz, erdal grafiaz eta azentu eta guzti. Multzo berean euskarazko eta erdarazko deiturak zetozenean, euskal grafiara egokitzen genituen guztiak. "Juan de Gandarias" eta antzeko izen-deiturak "de" hori kendurik, euskal erara egokiturik eman ditut. Ez, ordea, "Sanchez de Asiain" bezalakoak. Hauek, erdal grafiaz eta azentu eta guzti agertzen ditut. Historialarien izen-deiturak beraiek erabiltzen dituzten eran.

- Aita Santu Joan XXIII.a eta ez Joan XXIII. Aita Santua.

- Karlos La Ederrak... (Karlos La "Ederra" deituak).

- Eragozpenik handiena, ogibidez beste Ian batean aritu eta Ian hau asteburuetan tantaka-tantaka, orain hasi eta gero eten, ibili beharra izan da. Besterik ez eta eskerrik asko entzuteko izan duzuen pazientziagatik.

Luis Baraiazarra Txertudi